

BERRIGARA

18. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1996, irailak 27



Joxean
IZA

Hondakinekin artea

Autoberezi

FIAT *Alfa Romeo*

1996KO URTEKO KOTXEA

ANTIGUA AUZOA
ANTZUOLA

1996KO URTEKO KOTXEA



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18



LILURA
Edertze Institutua

Bidekurutzeta, 71. ☎ 76 31 71

**LILURA EDERTZE
INSTITUTUAREN
AZKEN
NOBEDADEA!!**

**BETIRAKO DEPILAZIO
ELEKTRIKOA!!**

- Aurpegi zein gorputzaren edozein ataletan
- Gizon eta emakumeentzat

- ✓ DENBORA GUTXIAGO
- ✓ ETA MINIK GABE

Bekainak
Bigotea
Aurpegia
Lepoa

Eskotea
Bularrak
Izterondoak

Bizkarra

Besapea

Besoak

Izterrak

Bernak

KONPROBA EZAZU!!

CABINA #27*

ROTALDE JAUREGIA
570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

argitaratzailea:

RDUN Elkartea.

zuzendaria:

eko Azkarate

redakzioa:

uardo Mendibil

el Elkoroberezibar

ra Larrañaga

laketazioa:

eko Azkarate

bilitzitatea:

ex Azkarate

arpidetzak:

orka Elortza

estuen zuzenketak:

tepan Plazaola

aripi Laskurain

ex Labaien

redakzio kontseilua:

orka Elortza

guel Angel Elkoroberezibar

ex Labaien

amikiak:

tor Rodriguez

orka Ortega & Jon Alvarez

ex Ugalde

ai Azkarate

anaketa:

anbxangorri taldea

rada:

000 ale.

primategia:

artu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

opyright:

BERRIGARA

ge gordailua:

50/91

SN:

00-6599

BERRIGARAK ez du bere gain
itzen aldizkarian adierazitako
enen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
uzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurlaritzaren Kultura
ailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

DANI LASKURAIN


Beart-eko diruzaina

- Astelehenean Beart-eko Batzar Orokorra izango da 19:30etan Kultur Etxean. Zeintzuk izango dira aztertuko diren gaiak?

- Ez dakigu zehatz-mehatz zein izango den gai zerrenda baina, orokorrean, elkarteak jarraitu beharreko bidea eta orain arte egindako ekitaldien balorazioa egingo da. Era berean, zuzendaritza batzordean gerta litezkeen aldaketak ere tratatuko dira. Horretarako Beart-eko kide guztiak batzarrera etortzeko dei egin nahi diegu.

- Eta zein izan daiteke Beart-en etorkizuna?

- Ez dakigu, hori eztabaidatuko da. Bazkideen aportazioak aztertuko dira. Beart-ek orain arte egindako lanari eta etorkizunari buruz hitz egingo dugu.



Beart sortu aurretik egiten ziren ekitaldiak egiten dira orain (ARCOra egindako irteera kenduta) eta beraz, horren balorazioa egin ondoren, jendeak etorkizunerako planteatu ditzakeen ideia berriak (arte erakusketak antolatu edo margo klaseak ematea adibidez) aztertzeko asmoa dugu. Zenbat eta jende gehiago etorri, orduan eta batzar aberatsagoa.

“Orain arte egindakoaren balorazioa eta etorkizunerako asmoak aztertuko ditugu”

I T U R R I O N E T I K

Urtea amaitu baino lehen Gorkako kantina adjudikatu nahi du Udalak

Udaleko Gobernu Batzordea baldintza plegu berriak lantzen ari da lehen bait lehen Gorkako kantina adjudikatu ahal izateko. Gogoratuko duzue, Gorkako kantina joan zen maiatzaren 22an inauguratu zen baina Udalak kaleratutako lehiaketak erantzun eskasa izan zuen eta ezin izan zen kantina uda aurretik zabaldu. Borda itxurako egurrezko txabolan tabernako barra jarrita dago, baina batere ekipatu barik dago. Udala hutsik dagoen kantina zerbait ekipatzeko ideia aztertzen ari da eta berehala baldintza plegu berriak onartu eta kaleratzeko asmoa dago.

E S A N
D U T E

“Ahaztezin eta apartekorik bada, Eduardo Muruamendiara da hori, dantza askatuko eta aureskuko Euskadiko txapelduna. Bergararra edozein dantzarik beretzat nahi lituzkeen trofeoak bereganatu ditu, Nestor Basterretxearena eta Kristtirenena. (...) Carlos Saura, Ingrid Rubio eta Carlos Fuentes Eduren saioaz hain txunditurik geratu ziren, *Taxiri* eskainitako txaloei erantzun ondoren bergararra besarkatzera joan baitziren. Eta emozioz beterik zoriundu zuten *Hotel Pauraren* zuzendariak eta Ted Demme *Beautiful girlsen* errealizatzaileak ere”.

BEGOÑA DEL TESO
Kazetaria
EL DIARIO VASCO

**DIAS DE FORTUNA**

Zapatua: 17:00, 19:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).

**TIERRA**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.

**UNDERGROUND**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Andy Garcia** aktoreak (*El Padrino III, Cuando un hombre ama a una mujer*) paper bikoitza landu du **Andrew Davisek** (*El fugitivo*) zuzendutako filme honetan. *Ruben* eta *Robbie* bikiak dira baina izaera guztiz ezberdina daukate. Euren ama adoptiboa hiltzean, *Rubeni* lagako dio heredentzia gehiena baina *Robbie* ez da horrekin ados egongo..

▼▼ **Julio Medem** donostiarraren (*Vacas, La ardilla roja*) azken filmea Cannesen parte hartzeko aukeratua izan zen. *Angelek* (**Carmelo Gomez**) izaera bikoitza dauka eta bi emakumeren artean (**Emma Suarez** eta **Silke**) aukeratu beharko du... **Karra Elejalde** eta **Nancho Novoren** partaidetzarekin. **Agirresaroberen** fotografia.

▼▼ **Emir Kusturica** zuzendariaren filme honek sari nagusia eskuratu zuen iazko Caneseko Jaialdian. **Kusturicak** (*Papa esta en viaje de negocios*) Yugoslavia ohian gertaturikoa azaldu nahi izan du eta horretarako II. Gerrate Mundialean kokatu du istorioaren hasiera. Drama eta komedia tartekatuz, bere jaioterriko ikuspegi bitxia landu du **Kusturicak**.

Deiak

▼ **1961ean jaiotako** bergararren bazkaria urriaren 5ean. Interesatuek Nahikari (76 57 71) edo Dixula (76 44 95) tabernetan eman dezakete izena urriaren 3a baino lehen. Izena ematerakoan 2.000 pezeta ordaindu beharko dira.

▼ **Maite Salsamendiren** mar-goak Kultur Etxean urriaren 6ra arte.

▼ **Alderdi Eguna.** Igandean, hilak 29, Armentian. Autobus txartelak Batzokiko tabernan. Irteera, goizeko 9etan Beheko Estaziotik.

▼ **Itzulpen lehiaketa.** EIZIE, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak "Literatura Unibertsala" bildumarako itzulpen-lehiaketa deitu du. Xehetasunak 27 71 11 telefonoan.

Ogia

▼ **Igandea 29:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 27:** Camacho/Español.
- ▼ **Zapatua 28:** Puy/Corcuera.
- ▼ **Domeka 29:** Puy/Irizar.
- ▼ **Astelehena 30:** Guallar/Amezua.
- ▼ **Martitzena 1:** Estella.
- ▼ **Eguaztena 2:** Mozos.
- ▼ **Eguena 3:** Camacho.

IBARGUREN PENTSUA

Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

San Migelak Angiozarren

Dantzaldiak, txapelketak, Herri-kirol saioak... asteburuan

San Migel jaiak ospatuko dira astebukaera honetan Angiozarren. Auzoko gazteak ibili dira jaietako egitaraua antolatzen eta astelehenera bitartean adin guztietako jendearentzat zuzendutako ekitaldiak egongo dira Angiozarren: diapositibak, herri-afaria, umeentzako jolasak, karta txapelketak, herri kirolak, e.a.

Angiozarko Telebista

Ostegunean Angiozarko Telebistaren emanaldia izan zen. Angiozarren ia herritar guztiak konektatuta daude kable bidez lokal batetan dagoen bideo batera. Telebistaren seinalea gaizki jasotzen zelako hasi ziren bideo programazioa eta satelite bidezko hainbat kanal eskaintzen. Dokumentalak, zine komikoa, filme zaharrak edo Angiozarren bertan grabatutako irudiak (jaiak, ekitaldiak, kirol probak) ematen dituzte. Neguan, astearte, asteazken eta ostegunetan ere hainbat programa ematen dira.

Herri kirolak

Bestalde, igande arratsalderako herri kiroleko



Domeka arratsalderako Herri-kirol saioa iragarri da.

probetan trontzalarien desafioa iragarri da. Zabaleta auzoko San Bartolome jaietan, Nikolas Agirrezabalek gazteei San Migeletarako erronka egin zien eta hor ari dira gazte eta nagusiak gogor entrenatzen. Laz ere, trontzalari proba izan zen San Migeletan eta orduan Fernando Marzana eta Igor Agirrezabal (Nikolasen semea) gazteek Goierriko txapeldunei irabazi zieten. Trontzalari proba aizkolari eta harrijasotzaileen saioaren ondoren jotkatuko da.

Domeka iluntzean, azkenik, San Migelen zeruratzea, "Agur agur Migel guria..." kantatuz eta dantzarien laguntzaz. San Migelen zeruratzea orain 6 urte hasi zen egiten. San Migelen irudia gasezko globoen bitartez zeruratzten da eta aurkitzen duenari diru saria eta Angiozarren afari bat ematen zaio. San Migelen irudia Irun, Falces (Nafarroa) edo Munitibarrera (Gernika eta Lekeitio bitartean) heldu da aurreko urteetan.

E G I T A R A U A

Barikua, 27

- 20:00: Jaien hasiera, kanpai jote eta etxaleroekin.
- 20:15: Ikurriña jartzea.
- 20:30: Kalejira tabernarik taberna.
- 21:30: Herri afaria Ortzi jatetxean.
- 23:30: Dantzaldia Muxu-Trukekin.
- 04:00: Mendaroko txokolatea.

Zapatua, 28

- 15:30: Angiozarko XXV. Tiro Plato Txapelketa.
- 16:30: Umeen jolasak eta ping-pong txapelketa.
- 19:00: Mus Txapelketa.
- 22:30: Briska Txapelketa.
- 23:30: Dantzaldia Lotxo taldearekin.
- 04:00: Oñatiko txokolate beroa.

Domeka, 29

- 11:00: Meza Nagusia San Migel elizan, Txilintxa Abesbatzarekin.
- 11:45: Txilintxa Abesbatzaren emanaldia, San Migel elizan.
- 12:15: Luntxa Pagomendi Elkartearen herriko jubilatuentzat.
- 12:30: Kalejira trikitalariekin.
- 16:30: Herri kirolak. Aizkolariak, harrijasotzaileak eta trontzalariek.
- 19:00: Trikitalariak plazan.
- 20:00: San Migelen zeruratzea eta dantzaldia trikitalariekin.

Astelehena, 30

- 16:30: Angiozarko eskolako umeen antzerkia eta jolasak. Ondoren askaria denentzako.

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

Ongizate zerbitzuari

Aurten ere Udaleko Ongizate Zerbitzuak antolatutako yoga ikastaroa emakumei bakarrik mugatuta dago. Iaz ere kexa batzuk azaldu ziren neurri baztertzaille horren kontra baina dirudienez Ongizate Zerbitzuak ez die batere jaramonik egin. Zergatik yoga emakumeentzat bakarrik? Nora jo dezakegu yoga egin nahi dugun mutilak? Zer gertatuko litzateke kontrako kasuan, ikastaroa gizonetzkoentzako bakarrik antolatutako balitz?

Nik uste dut Udalak ez dituela neurri baztertzaille horiek hartu behar, azken batean herritar guztiok eskubide berberak ditugulako. Beste gauza bat izango litzateke, emakume eta gizonak nahastea ez bada nahi, bi talde osatzea, emakumezkoena bata eta gizonetzkoena bestea. Baina hori lehenbizi izena emateko eskubidea eskaini eta gero egin daiteke, izan ere lagunen artean komentatu izan dugu, gizonen artean ere badagoela yoga egin nahi duenik. Beraz karta honen bidez mutilak yoga egiteko daukagun eskubidea aldarrikatu nahi dut. Oraindik ere Ongizate Zerbitzuak badauka erabaki hori zuzentzeko astirik. Besterik gabe, mila esker.

I. MUJKA

Eskerrik asko

Labegaraietako Futbito Txapelketaren XII. edizioa hastear dagoenean, Lagunak Areto Futbola elkarteak eskerrak eman nahi dizikie txapelketa aurrera ateratzeko diruz lagundu duten erakunde, elkarte edota etxe komertzial hauei guztiei:

Blanco tailerrak, Nahikari taberna, Pol-Pol taberna, Ogizun okindegia, Herran elekragailuak, K-3 inprimategia, Etxagi jatetxea, Bolintxo okindegia, Luis Mari Rezola harategia, Agirrebeña jatetxea, Larrañaga optika, Caja Laboral-Euskadiko Kutxa, Ola tailerrak, Canalejas taberna, Azpeitxi jatetxea, Udal Kirol Zerbitzua, Labegaraietako Kiroldegia eta Areto Futboleko Gipuzkoako Federazioa. Guztiei, mila esker.

Bestalde, aurten 53 taldek eman dute izena eta, beraz, 500 lagunetik gora izango dira futbito txapelketan parte hartuko dutenak. Lerro hauen bitartez eskatu nahi diegu txapelketan arituko diren jokalariei Antolaketa Batzordeak indarrean jarritako arauak betetzen saia daitezela. Txapelketa bide onetik joan dadin ezinbestekoa da, eta, horrela, guztiok irabaziko dugu.

Besterik gabe, ondo pasa dezagula futbitoan eta irabaz dezala onenak.

LAGUNAK ARETO FUTBOLA

Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Gazte bat hil Kiroldegian

Iker Zabala Urriategi 16 urteko gazte bergarra hilda agertu zen Kiroldegiko rokodromoan astearte arratsaldean, 14:30ak inguruan. Iker Zabala Urriategi eskalatzeko erabiltzen zuen soka batekin ito zen. Ikerrek Pol-Poleko mendi irteeretan hartzen zuen parte eta mutil oso ezaguna zen herrian. Ipintza Institutuko ikaslea zen eta bere aldeko hileta elizkizunak asteazkenean izan ziren Santa Marinan, eliza bete-beterik zegoela. Bestalde, Pol-Pol Mendizale Taldeak Iker Zabala Urriategiren omenezko egun osoko mendi irteera antolatatu du Karakatera igandereko. Irteera goizeko 8:30etan egingo da Beheko Estazioetik. Bertara joaten direnei bokadiloa eramateko gogorarazi nahi zaie.



Alzheimer gaisoen familiarrek eguneko zentroaren beharra aldarrikatu dute azkenaldian. ARTXIBOA.

Gaisoak egunez zaintzeko zentroa irekiko da Jubilatuetan

Gaisoak egunez atenditzeko zentroa irekiko da Jubilatuen Egoitzan datorren urtean. Udalak eguneko zentroa martxan jartzeko eskakizuna egin zion Diputazioko Ongizate Zerbitzuari eta joan zen astean Jubilatuetako behe solairuan zentro hori irekitzeko oniritzia jaso zuen Udalak.

Beraz, Jubilatuetan ile-apaindegia eta saloia dauden tokian 12 bat lagun atenditzeko zentroa jarriko da martxan urtarri-laren letik aurrera. Behe solairua egokitze proiektuak 4 milioi pezeta inguruko aurrekontua

dauka eta Boni Laskurain kaletik zentrorra beste sarrera bat egingo da. Zentroan Bergara, Antzuola eta Elgetako gaisoak jasotzeko asmoa dago. Aurretik hiru udalak zentruaren jestio eta mantenimendurako akordio batera iritsi beharko dira. Zerbitzua- ren kostua, berriz, Diputazioaren eta erabiltzaileen artean ordainduko da. Udaleko Ongizate Zerbitzuak dirulaguntzak emango dizkie horren premia duten familiei.

Bergaran eguneko zentroa jartzeko eskaria sarri egin izan du hainbat kolektibok azken hilabe-

teetan. Alzheimer gaisoen familiakoe, esate baterako, egunez behintzat, bizitza normal bat egiteko beharra azpimarratu dute, azken batean beraiek jasaten baitituzte 24 orduz gaisoaren menpe egotearen ondorioak.

Alzheimer gaisoek lehenetasuna

Eguneko zentroan gaitasun degeneratiboren bat dutenek lehenetasuna izango dute. Egunez gaisoak zaintzeko zentroa astelehenetik ostiralera bitartean zortzi orduz zabalik izango da.

HILDAKOAK

Iker Zabala Urriategi
Irailak 24, 16 urte.

JAIOTAKOAK

Yesenia Alcaraz Diaz
Irailak 19.
Jonathan Alcaraz Diaz
Irailak 19.
Nerea Najera Larrañaga
Irailak 21.

ALEMANA BERGARAN

Hastapen maila 18:30etan.

Hortik aurrera beste maila guztiak.

Burdiñate, 5 BERGARA • Tfnoa: 76 30 01 • Faxa: 76 00 32

THE DOOR TO

LA PUERTA AL



Kilometroak eta Nafarroa Oinez

Aranzadi Ikastolak eta Jardun Elkartek urriaren 6an Elgoibarren ospatuko den Kilometroak 96ra joateko autobusa antolatu dute. Izen-ematea Jardunen (76 08 19) edo Aranzadi Ikastolan (76 26 76). Bestalde, hilaren 13ko Nafarroa Oinezeko edizioan lan egiteko jendea behar da. Izen-ematea goiko telefono zenbakietan.

Bederatziurrena Monja Zaharretan

Atzo hasi eta urriaren 4ra bitartean Asiseko San Franziskoren omenezko bederatziurrena egingo da Monja Zaharretan. Elizkizunak arratsaldeko 7etan hasiko dira.

Gripearen txertaketa

Aurtengo gripearen kontrako bakunazio kanpainak urriaren 31ra arte iraungo du; Anbulategian, astelehenetik ostiralera, 10etatik 12etara; Erresidentzian urriaren 1an, 10etatik 12etara; Kiroldegian urriaren 3an 10etatik 11etara; Osintxun urriaren 10ean 10etatik 12etara eta San Prudentzian urriaren 15ean, 10etatik 11etara.

Garapen pertsonala

Ongizate Zerbitzuak emakumeei zuzendutako garapen pertsonaleko ikastaroa antolatu du urriaren 17tik abenduaren 19ra. Izen-ematea Ongizate Zerbitzuan urriaren 4ra arte (plaza mugatuak).

Akulu Euskaltegia

Akulu AEK euskaltegian EGako klaseak urriaren 5ean goizeko 9etan hasiko dira eta gainontzeko klaseak, berriz, urriaren 7an. Izen-ematea 76 05 18 telefonoan.



Eli Arrieta bergararrak dihardu Zerrajerako artxiboa osatzeko proiektuan lanean.

Zerrajerako artxiboa osatzeko proiektua martxan dago

Zerrajeran lanean ibilitakoak elkarrizketatuko dira

Zerrajerako historia osatzeko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak martxan jarritako "Union Cerrajera. Ahozko iturburuak" izenburuko proiektuan lanean ari da Eli Arrieta bergararra. Bekarekin, Udalak dituen Zerrajerako artxiboak osatu nahi dira. Horretarako, Zerrajeran lan egin izan duten 15 bat lagun elkarrizketatuko ditu Eli Arrietak abendura bitartean. Elkarrizketa horiei esker lan egiteko modua, Zerrajerak herrian izan duen eragina eta beste hainbat informazio jasoko da. Eli Arrietak azaldu digunez, "normalean historia goitik idazten da eta behean lanean ari direnei ez zaie hitzegiteko aukerarik ematen. Proiektu honen bitartez, normalean paperetan agertzen ez di-

renei aukera hori emango zaie".

Artxiboak miatu ondoren sexua, adina edota baserri edo kalean bizi ote diren hartu da kontutan elkarrizketatuak aukeratzeko. Eli Arrieta zenbaitekin harremanetan jarri da dagoeneko eta orain arte guztiak prest azaldu dira proiektuan laguntzeko. Zerrajerako historia ikasi behar izan du Elik.

Eusko Ikaskuntzak proiektuan kolaboratuko du eta hitzezko historian espezialista den Iosu Txueka proiektuko aholkularia izango da. Arantzazu Oregi Udal artxibariaren hitzetan, "historia garaikidean asko erabiltzen ari da metodo hau eta dauzkagun datuak osatzeko oso egokia da". Proiektuak milioi erdiko aurrekontua du.

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

Angiozar, 37

☎ 76 27 82



Hobera egin dute jantoki publikoetan zauritutakoek

Repsoleko teknikariek astelehenean bisitatu zuten sukaldea

Arantxa Kortazar 64 urteko sukaldari bergarra eta J.G.V. 52 urteko Fagorreko teknikari oñatiarra, joan zen astean Martinez de Irala ikastetxeko jantokietako sukaldean izandako gas leherketaren ondorioz zauritutakoak, ospitalean ingratuta jarraitzen dute. Arantxak bigarren graduako erredurak ditu aurpegian eta besoan baina bere egoerak hobera egin du eta baliteke astebukaeran etxera bueltatzea. Bestalde, J.G.V. Fagorreko langilea astelehenean irten zen Kurutzetako eritxeko larrien unitatetik. Bere gorputzaren %25ean erredurak ditu baina bere egoerak ere onera egin du. Eztanda gertatu zenean, sukaldean ez zegoen beste inor eta ikaslerik ere ez zegoen ikastetxean.

Ikasturtea hasi baino lehen sukaldearen urteroko errebisioa egiten ari ziren sukaldean leherketa izan zenean, ostegunean 13.40etan.

Astelehenean Repsoleko teknikoak eta Industria saileko ordezkariak Martinez de Irala ikastetxeko sukaldea errebisatzen izan ziren eta gas ihesa detektatu zuten eta material batzuk aldatu beharra izan zen. Ikastetxeko arduradunen hitzetan, "sukaldea garantia guztiekin martxan jarri da, dena konpondu da eta jendeari lasaitasuna eskatu nahi diogu". Aste honetan, jantoki publikoetan bazkaltzen duten 130 bat ikasle eta irakasleei kanpotik ekarri zaie bazkaria, sukaldean konponketak (kalte materialak txikiak izan ziren) egin behar zirelako.



Pedro Belastegi etxean

Joan zen ostegunean Pedro Belastegi "Peito" preso bergararrari ongi-etorria eskeini zitzaion Plazan. "Peito" k bost urte eta bederatzita hilabete eman ditu kartzelan eta asteazkenean aske utzi zuten. Cacereseko espetxetik asteazkenean bertan heldu zen eta, Gestorek deituta, ostegunean jende dexente bildu zen Plazan. Bertan dantzari eta bertsolariak "Peito" ren omenezko dantzak eta bertsoak eskeini zituzten. Era berean, hainbat opari jaso zituen "Peito" k bere ongi-etorrian. Ondoren, herriko kaleetan zehar manifestazio jendetsua izan zen.

Beart-en Batzar Orokorra

Beart-ek, Bergarako Artisten Elkarteak, Batzar Orokorra egingo du astelehenean 19:30etan Kultur Etxean. Beart-eko bazkideei eta interesa duen herritarrei dei egiten zaie batzarrean parte hartzeko.

Balentziagaren erakusketa

Jon Balentziagaren eta Aita Menni ospitaleko bere ikasleen pintura eta zeramika erakusketa zabalik dago Arrasateko Monterron Kultur Etxean datorren ostegunera arte. 30 bat lan daude ikusgai.



Astean zehar, normal bazkaldu dute jantokian 130 bat ikasle eta irakasleek. ARTXIBOA.

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Osasuna

Alopezia

- Zeintzuk dira alopeziaren sintomak?

- Lehenbizi bereizketa bat egin behar da, orbanatzeko alopezia den ala ez. Orbanatzeko alopeziak ileburuko azalaren gaisotasunen ondorio izaten dira eta tratamendu gutxi daukate. Gaisotasun dermatologikoak dira: lupus, likena eta pseudopelada deiturikoa.


Orbanatzeko alopeziak ez direnetan folikuloa (sustrai) ez da suntsitzen (aurrekoan bai) baina alopezia hauetan ere bereizketa bat egin behar da: toxikoak (farmakoek eraginda), erditzearen ondorengoak, difusa deiturikoa (burdinaren faltagatik) eta, azkenik, alopezia areata (partxetan azaltzen dena). Badirudi azken hau dela Monacoko Carolinak duena. Batzutan unibertsalala bihurtzen da eta gorputz guztiko ilea galtzen da. Baina tratamendu ona dauka.

- Zein da alopeziarik amankomunena?

- Gehien ikusten dena alopezia androgenetikoa da, bai gizoneko eta bai emakumezkoetan ere. A-

lopezia mota hau hormonal da; gizonezkoetan ohizko burusoildura litzateke eta emakumezkoetan, berriz, gehiegizko hormona maskulinoak izateagatik ematen da. Askotan beste sintoma batzuekin agertzen da: aknea, hilerokoaren alterazioak, loditasuna edo hirsutismoa (agertu behar ez den tokian ilea agertzen da).

“Alopezia androgenetikoa, emakumezkoetan, beste sintoma batzuekin agertzen da”



Erditzearen ondorioz, emakumeek ilea galdu dezakete.



CRISTINA GARCIAINDIA
(Dermatologoa)

- Zergatik geratzen dira gizonezkoak lehenago burusoil?

- Genetikoa da hori, kromosometan dago.

- Zein tratamendu dauka alopezia androgenetikoa?

- Emakumezko zein gizonezkoen kasuetan ba-

dago tratamendurik. Gizonetan Minoxidil izeneko lozio bat eman behar da bi aldiz egunean. Behin tratamenduarekin hasiz gero bizitza guztian jarraitu behar da baina esan behar da kasu guztien %30ean baliogarria dela bakarrik. Minoxidilak ez du ilea irtenarazten baizik eta jausialdia eragozten du. Minoxidila alopezia hasberrietan aplikatu behar da (10 urte baino gutxiagoko eboluzioa dutenetan). Bestalde, gainontzeko txanpu, krema, lozioak eta horrelako beste produktu guztiek ez dute ezertarako balio.

Emakumezkoetan, berriz, minoxidila beste produktu batzuekin batera erabiltzen da. Antandrogenoak erabil daitezke eta espironolaktona izeneko diuretikoa ere erabiltzen hasi da.

Dena den gizon zein emakumezkoek arazoa alde batera ez lagatzeko eskatuko nieke; ez dago panazearik baina zerbait egin daiteke eta kasu askotan alopeziarekin loturiko beste hainbat gaisotasun detektatu daitezke.

- Alopezia hereditarioa al da?

- Kasu batzutan bai. Alopezia areata adibidez heredagarria izan daiteke (bizarrean ere agertzen da) baina, esan bezala, tratamendu ona dauka.

AGENTZIA:
J. ELKORO


Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

"Anima zaitez" kanpaina aurkeztu du Udal Euskaltegiak

Oferta zabal, integratzaile eta ez-baztertzaile baten ildotik, euskara ikasteko gogoz dabiltzan guztiei dei egin nahi zaie

Duela egun batzuk Gipuzkoako Udal Euskaltegiak

komunikabideekin elkartu ziren 1996/97

ikasturtearen kanpaina aurkezteko "ANIMA ZAITEZ/ANIMATE" lemapean.

Topaketa honetan alderdi politiko desberdinetako alkateak (Bergara, Arrasate, Irun...) izan ziren; hauen izenean Nekane Larrañaga, Azpeitiko Udal Euskaltegiko lehendakaria, mintzatu zen.

Honez gain, Jokin Azkue HABEren Zuzendari

Orokorrak eta Azpeitiko eta Eibarko Udal

Euskaltegietako zuzendariek ere hartu zuten parte.

Oferta zabal, integratzaile eta ez-baztertzaile baten ildotik, euskara ikasteko gogoz dabiltzan guztiei dei egin nahi diete UDAL

EUSKALTEGIEK aurtengo kanpainaren "ANIMA ZAITEZ/ANIMATE"


esloganarekin, euskara ikastera edota dakiena aberastera joateko zorian dagoen guztiari azken bultzadatxoa emanez, pertsona-multzo honek izan dezakeen beldur, zalantza eta uste oker guztiak




Talde txiki, homogeen eta eraginkorretan antolatzen da irakaskuntza Udal Euskaltegian.

uxatuz.

Talde txiki (12-15 pertsona), homogeen eta eraginkorretan antolatzen dute ikaskuntza Udal



Euskaltegiek, bide komunikatiboa bultzatuz, euskara eguneroko lan eta bizitzako hizkuntza bihurtzeko. Gipuzkoako herri handi guztietan kokatuta, Udal Euskaltegiek eskaintza erakargarri, eraginkor eta atsegina aurkezten diote aurtengoan ere Gipuzkoako gizarteari. Anima zaitez zu ere! ■



Zabalotegi, 13. Telefonoa eta faxa: 76 44 53

11 izan, 11 izen

Gaitzizenak: izenaren ordezeko deiturak



Zornoza nekez esaten omen denez, Txorno gaitzizenez deitzen diote Jesus Mariri; orain semeari ere bai.

Bernardo Atxaga, Orixe, Lauaxeta, Txepetx, Urko... milaka dira izen-abizenez ezagutu beharrean, gaitzizenez izendatzen ditugunak.

Gure herrian ere betidanik izan dira gaitzizenak: Bustiño, Prakamotx, Otxakila,

Lokonekoak, Pianekoak, Perratzaillianekoak, Martinatrapunekoak, Mandazaingoa... Lehengo gaitzizenak ondorengo senideei deitzeko ere erabili izan dira, baina ordukoak joan egin diren heinean, berriak sortu dira. Nork ez du gaitzizenez deitzen zaion lagunik? Kikio,

Errenteri, Felisin, Trosko, Fix, Txefo, Xurra, Pisto, Peligro, Satorretxe, Take... Hasi pixka bat pentsatzen.

Milaka gaitzizen, ezizen, izengoiti edo goitzen daude izen-abizenak erabili partez norbait izendatzeko. Badira animalia izena dutenak, ger-

taera bitxi bat medio sortu direnak, lanbidea kontutan hartuta jarri direnak, pertsonaren gorputza edo neurriaren arabera jarriak, jatorria gaitzizentzat dutenak... Asko dira gaitzizena onartzen ez dutenak, baina gehienak, telefonoz egin dugun inkestak erakutsi di-

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorenzo, 25 BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak

gunez, erabileraren puru-
an-edo ohitu egin dira.

"Porri etxean dago?" galderari bere aitaren erantzunak jarraitu dio: "ez, ba." Nor ginen eta zertaz ari ginen azalduta-koan, semeari Ibon Arrieta esan beharrean Porri deitzeak ez diola grazia handirik egiten azaldu digu. "Ez zait gustatzen, baina gazteek elkarri deitzeko gaitzizenak erabiltzen dituzte. Gu ere gazte denboran hala ibiltzen ginen. Hasieran telefonoz Porrigatik galdetzen hasi zirenean 'zein dok Porri? Ibon izengok ba!' esaten nuen, baina denborarekin ohitu egin naiz".

Txorno Zornoza baino errazagoa

Zenbakia sakatu eta Txorno badagoen galdetu diogu telefonoa hartu duen emakumeari. "Bai, noren partez?" izan da erantzuna. "Berrigaratik hots egiten dut". Bestaldean Jesus Mari jarri da, eta gaitzizenez hizketan hasi naizenean, emaztea jarriko dela adierazi dit, eta berriz emakume ahotsa entzun dut. "Nik zure gizonarekin bitzegin nabi dut, baina, tira, besterik

Pertsonen ezaugarri nabarmen bategatik, lanbidegatik, jatorriagatik... jartzen dira normalean gaitzizenak.

ezean zuk argitu behar-ko didazu", esan diot.

Abizenetik datorkio senarrari Txorno gaitzizena. "Zornoza du abizenena, baina jende askori kostatu egiten zitzaion behar bezala esatea. Banketxeko eta bestelako kartetan ere Zornoza jarri beharrean Zamora, Zurain... denetarik jartzen zioten, abizenak asmatu egiten zizkioten. Halako batean norbait Txorno deitzen hasi zen, eta orain mundu guztiak hala deitzen dio". Jesus Marik badu bere gaitzizena heredatu duenik, semeari ere Txorno esaten baitiote. "Batez ere bera baino nagusiagoek deitzen diote, baina eskolan eta lagunak ere hasi dira Txorno deitzen".

Bi Txistor

Gero angiozartar bati deitu diogu, Angiozarren gaitzizen ugari baita: Pierrro, Txitxi, Hojalatas, Tortillas, Pitirrio, Txifli... Guk Aitor Belastegirekin egin

dugu berba. Lehen Epe-rra ere deitzen zioten, baina Txistor gaitzizena irabazle irten da. "Gurasoak eta osaba-izebak izan ezean, denek Txistor deitzen didate: lagunek, lankideek, lehengusuek... Andreak eta koinatak berriz, Txis esaten didate". Ez da akordatzen noiztik deitzen dioten Txistor, lagunek txikitari jarritakoa denez, eurei galdetzeko esan digu. Horietako batengana jo, eta esan digu beste koa-drilako bati, Jose Mari Alberdiri, Txitxi gaitzizena Txistorrek jarri ziola. "Nesken atzetik eskuan asunak hartu, eta txi-txitxi esanaz ibiltzen zen. Azkenean Txitxi gaitzizena geratu da".

Angiozartik kalera jaitsi gara. "Txistor etxean dago?" galdetu dugu berriz. Ez dago, baina Juan Manuel Lasari hala deitzen diotela azaldu digu bere anaiak. "Ia denek hala deitzen diote. Etxean anaia batzuk ere bai. Gurasoak euren artean

berari buruzko zerbait esaten badihardute ere sarritan deitzen diote hala, berari zuzenean, ostera sekula ez".

Bárkanosetik prakamotx

Miren Agirrerri nor den galdetuz gero hauxe erantzungo dizu: "Miren Prakamotx". Ez da jendeak ez ezagutzearen beldur. "Izen-abizenak esan, eta ezagutzen ez banaute, Miren Prakaedo Prakamotx naizela esan, eta ezagutu egiten naute, batez ere zaharrek". Arantxa, bere ahiztari, eta bie deitzen diote horrela. "Ez dakit noiz, baina aspaldi, Algodonerran huelga egin zuten langileek. Ez zuten ezer lortzen, eta gure senide bat bidali zuten nagusiekin berba egitera. Gure senide horrek erderaz jakin ez, eta perdónanos esan beharrean bárkanos esan zuen. Barkanos horretatik prakamotx atera zen".

Miren harro dago gaitzizenaz, eta pozik kontatzen ditu jatorriaren gorabeherak, hala ere galtzen ari direla dio. "Gaur ere jartzen dira, baina lehengoak galtzen ari dira,

Gurasoek hamaika buruhauste izaten dute seme-alaben izena asmatzen, eta gero lagunek beste izen bat jartzen dute.




HAIZETEL
Telefonia mobila

Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68



ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62



Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57



Alfonso Gallastegi: "Guk ez dugu hainbeste gaitzizen ezagutu, baina lehen asko ziren".

eta lastima da. Ilobari, Jokini, batzuk esaten diote Prakamotx, baina gaur egungo gazteek gaitzizen berriak dituzte. Mikeli, iloba gazteari, esaterako, Olen esaten diote". Mikel Laskurainen gaitzizena, Olen, Olen-terotik dator.

Hotzak Otxakil egin

"Otxakilanekua da?" galdetu, eta "zer?" baten ondoren Alfonso hor den galdetu behar izan dugu. "Bai, baina ia guri ere ez digute hala esaten,

Otxakila leben gehiago zen. Pentsatu, semea ere berritu egin da Otxakila entzun duenean... eta ni ere bai". Izan ere, zaharra da gaitzizen hori. "Gure osaba okina zen. Labe ondoan lan egin, eta kalera ateratzen zenean hotzak egoten zen nonbait; norbait basiko zitzaion hotzakila zela esanez, eta otxakilla gaitzizenarekin geratu zen. Osabari esaten hasi ziren, eta gero gure amari-eta ere esaten zieten".

Alfonsoren ustez lehen jende xelebrea zego-

en, eta taberna girotik irretzen ziren gaitzizenak. "Guk ez dugu hainbeste gaitzizen ezagutu, baina leben asko ziren. Jende txispaduna zegoen, herriko bizimodua egiten zen, ez orain bezala, eta gaitzizen asko jartzen zen".

Tôte, Toté, Lezeta, Jose... baina Joseba ez

Joseba Lezeta Berrigarako kolaboratzaile antzuolarrak esan digunez, Antzuolan ere gaitzizen asko dago. "Kale baserri-

ek gaitzizen batetik bar-tu dute izena. Ez dakit noiz eta nola sortuko ziren, baina aspaldikoak dira".

Badirudi sasoi batean etxe horretan zegoenari gaitzizen bat jarri zitzaio-la jatorriagatik (Mutriku-nekoa, Lamañokua, Oñati-arenekoa...), lanbidea-gatik (Artzaingoa, Erre-mentarinakoa...), etxe-aren kokalekuagatik (Baz-tarretxe), etxeko bizilagu-nen baten ezaugarri ba-tengatik (ilegorrinekoa, Pasientenekoa, Kojiane-koa...)... eta ondorengo belaunaldietako senitarte-koei ere gaitzizen horien bidez deitu zaie. "Txir-txilgokoei, esaterako, ha-la esaten zaie, garai ba-tean bango bati Txirtxila esaten ziotelako. Harrez gero han bizi direnei Txirtxilgoak esaten zaie".

Josebak berak ere gaitzizena du, Tote, eta oso gutxi dira Nortasun Agiri-ko izenez deitzen diote-nak. "Jose, Tôte, Toté, Le-zeta... denetarik esaten didate. Joseba esaten di-datenak etxeokak izango dira". Izenaren gorabe-herak direla, bitxikeria bat baino gehiago du kontatzeko. "Behin bat nitaz galdezka etorri zen etxera. Ama irten zitzai-on. Mutilak ez zekien nire izena, mutu geratu zen zer esan ezin zuela asmatu, eta azkenean amak esan behar izan zion ea nire bila etorri zen."

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.
Karta (2.000-3.500 pza. artean).
Okela eta arraina parrilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadiloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

**Haurdun bazaude
LAURA da zure
jantzidenda.**

**Udazkeneko moda
gaztea jazteko neurria
ez da izango arazoa.**

Tailaje zabalena dugu.

Laura



**Erdiko kale, 30
Tfnoa: 79 05 80
ARRASATE**

Kilometroak 96

Urriak 6 ELGOIBAR

Jakingo duzuen bezala aurtengo Kilometroak festa Elgoibarren ospatuko da urriaren 6an. Egun hori iritsi bitartean Berrigarak joku bat proposatu nahi dizute: **Kilometroak 96ko logotipoa izkutatu dugu aldizkariaren orrialde batean.** Aurki ezazu eta behealdean daukazun txartela bete adieraziz

logotipoa non dagoen. **Asmatzaileen artean Kilometroak 96k salmentan duen materiala erosteko 2.000 pezetako balioa duten 6 txartel zozketatuko ditugu.**

Banoa, Banixe

Euskaraz, bai horixe!

Izen-abizenak:

Telefonoa:

Zenbagarren orrialdean dago logotipoa?

Moztu txartela eta ekarri edo bidali urriaren 2a baino lehen Berrigarara. Errotalde Jauregia. Kultur Etxea. 20570 Bergara.



Gobernuak funtzionarioen soldatak izoztu nahi ditu. Zer deritzozu horri?




Santiago Bernardo

Zenbait urte daramatzate horrela eta sutan egongo direla pentsatzen dut. Baina euren mobilizazioetan besteoi pakean utz gaitzabela.



Maika Larrarte

Erdi funtzionaria naiz eta ez zait ondo iruditzen. Beste lanetan bezala igoera bat egon behar da eta funtzionarioei berdin, besteei bezala.




Eba Galdos

Ez dakit, egia da nahiko kobratzen dutela baina ez da normala urtero gauzak erosteko botere ekonomiko bera izatea, prezioek gora egiten badute.




Mertxe Zapata

Kargu altuen soldatak konjelatu ditzatela, lehenbizi ejenplua emateko. Zerbeit egin behar bada beraien soldatekin hasteko.



Balentin Gantxegi

Ondo, lehen ere nahikoa irabazten dute eta. Neurri egokia dela iruditzen zait.



Jose Jabier Barrutia

Disparate bat da. Bizimodua gora doa eta hori konjelatzea ez da irteera bat. Beste bide bat hartu behar da, ez dakit zein baina hori soluzioa ez dela garbi dago.



ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Artekale, 22 BERGARA ☎ 76 16 63

Siaska

Dena zure haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39



Mikel Gaztelurrutia

PIANO ETA SOLFEO KLASEAK
(Goi mailako titulaziodun maisua) 🎵

☎ 76 50 59



Folklore

Euskara ordenagailuko programen bidez ikas daiteke gaur egun, baina guk askotan, Bilbo euskalduna zenean bezala bizi izaten segitzen dugu. Nire iritziz, gehiegikeriak egin izan dituzte (eta egiten dituzte) euskara-elkarte, erakunde eta abarrek euren ekitaldietan ia-ia bakarrik; dantzak, bertsolariak eta abar antolatuz.

Euskal mundua honekin *bakarrik* erlazionatu izan da eta hau ez da erreala. Erroen, sustarren, identitatearen, izaeraren oinarria al da? Beharbada bai, zati garrantzitsua bai, behintzat. Baina nire inguruko jendearengan, ezta neuregan ere askorik, ez da zaletasunik piztu. Arrazoiak?

Adierazpen batzuk argiak dira (bertsolaritza), beste batzuk, ostera, ulergaitzagoak (dantza). Ulergaitzagoak diren adierazpen hauek ulertzen laguntzeko, zergatik ez zai- gu inoiz azaldu dantzariaren saltoaren esanahia edota alboko dantzariari eskua luzatzearen arrazoa? Agian, zen- bait informazio edukitzeak lagunduko liguke zaletasuna pizten. Arrazionaleria izatea ote da?

Zain dezagun ondo geurea eta zabal diezazkiogun atea kanpotik datokigunari.

Felipe IÑARRA



Produktu biologikoak

Bergaran jadanik ohitu gara. San Martin eguneko azo- kan, aurreko urtean bezalaxe, hiru sarietatik bi eraman du- te barazki biologikoek. Aurten, *behi ero eta umeendako po- teko pureekin* gertatutakoak, euskaldunon jakin mina piztu omen du. Eta dagoeneko mundu guztiak daki "biologiko" hitzak esan nahi duena: kimikarik gabekoa.

Horrela, Euskal Herri osoan gero eta produktu biologiko gehiago eskatzen dira. Prezio eta kalitatea ziurtatzeko, kontsumitzaileak elkartuz joan dira: Araban, Bio-Alain; Na- farroan, Landaren; Bizkaian, Bizi-Gain eta Gipuzkoan, za- harrena, Otarra Elkartean. Beste aldetik, produktoreak, be- ren indarrak batuz, Biolur izena duten herrialdeko elkar- teetan biltzen dira.

Emaizak ikusten hasi gara. Joan den igandean, nahiz eta eguraldiak ez lagundu, "Gipuzkoako Nekazaritza Bio- jokoaren II. Azoka" ospatu zen Zerainen. Euriari beldurrik izan gabe, jai-giroa nagusi. Bertara beste herrialdeetako ordezkariak ere ekarri zituzten beren produktuak.

Arnasa hartzeko astirik izan gabe atxabaltarrek beste azoka bat antolatu dute datorren astebururako. Eta, hu- rrengoan (urriak 4-6) "Econavarra" ekoizpen eta kontsumo ekolojikoari dagokionez Euskal Herrian lehenengoa izan dena. 96koa hirugarrena izango da eta hara hurbiltzen di- renentzat gauza interesgarri eta osasunerako onak ezagu- tzeko aukera paregabea.

Beraz, produktu biologikoak oraindik ezagutu eta dasta- tu ez dituztenek ezin izango dute esan paradarik ez dutela izan. Ondo pasa eta, zalantzarik gabe, on egin!!

Nora PALMITANO

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

**ALDI BATERAKO
ADMINISTRARIA
hartzeko deialdia**

Oinarriak eta informazio gehiago:
Udal Euskaltegian (Zabalotegi, 13)
☎ 76 44 53 (08:00etatik 13:00era).

Eskaerak aurkezteko epea:
Irailaren 30etik urriaren 15eko
12:00ak arte euskaltegian bertan.



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00


Larunbatetan: 9.00-13.00

■ **Kinto bazkaria**

1933. urtean jaiotako bergarrek anaiarteko eguna ospatu zuten domekan. Azken urteotako ohiturari jarraituz, eguerdian hildakoen oroimenezko **meza** izan zuten **Santa Marinako elizan** eta jarraian bazkaltzeko Antxoni jatetxean



bildu ziren. Guztira, 50 lagun bildu ziren igandeko bazkarian eta eguraldiak lagundu ez arren, primeran pasa zuten elkarrekin. Bazkaldu aurretik Frontoian argazkia atera genien.



■ **Mexiko lindo**

Argazkian agertzen den kuadrila **Bedelkarrek** San Martinetan antolatutako estampa lehiaketako irabazlea izan da. Zapatuan **mexikar festa** izan zen San Martin plazan eta herriko hainbat tabernatan eta Bedelkar dendarien elkarteak mexikarrez ondoen mozorrotzen zen kuadrilarentzat sari berezia eman zuen. Onenak argazkikoak izan ziren eta sari gisa Bedelkarreko jatetxe batean **25.000 pezetako afaria** eskuratuko dute. Mariatxiekin alaitutako afaria izango ote?

ZUBIETA
elektragintza


MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Uriarte, 8 BERGARA
☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxes: 76 04 77



Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

■ Irrati bidezko harremanak

Surra Irratizaleen Elkarteko kideek irrati-kontaktuen lehiaketa egin zuten zapatuan **Agarreburun**. Surrakoek ez zuten euren marka (2.500 kontaktu) hobetzerik izan eta guztira 1.270 kontaktu egin zituzten. 15 lagun aritu ziren irratian lanean eta hartu emanik urrutiena Kanariasekin lortu zuten. Eguraldi txarrarekin hainbat arazo izan zituzten eta haizeak karabana eramango ote zuten beldur izan ziren irratzaleak. Zorionez, ez zuten erreskate taldeekin kontaktatzeko beharrik izan...



Zertan dihardute ba?



Antonio Zabala, Kazetaritza ikasketak burutu zituen 30 urteko bergarra, Gipuzkoako Odol Emaleen Elkarteak Donostiako Zinemaldian emango duen sariko epai-mahaian lanean ari da. Aipatutako saria elkartasun baloreak ondoen zabaltzen dituen filme edo aktore lanari emango zaio eta Antoniok eta bere lankideek sail ofizialean aurkeztutako 17 filmeren artean aukeratu beharko dute. Bere hitzetan, *"maila nabiko ona dago eta asteazkenera arte Beautiful girls eta Sol de otoño gustatu zaizkit gehien"*.

■ Musika bizi bizian

Joan zen asteen hainbat emanaldi izan ziren Pol-Pol tabernan. Ostegunean **Morau** bakarlariaren kantaldia izan zen eta ostiralean, berriz, **Mal de ojo** talde

donostiarraren txanda izan zen. Donostiarrak laister girotu ziren eta euren runbekin jendea berehala hasi zen dantzan. Eskertzen dira bai gauak alaitzeko ekitaldi hauek... Bestalde, uda aurretik egin zuen moduan, **Oihulari Klown** antzerki taldeak emanaldia eskeiniko du Pol-Polen hileko hirugarren ostegunetan. Hurrengo emanaldia datorren urriaren 17an izango da. Ez galdu aukera!!



GAZKIA: AMAIA LABAIEN

LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Deco-Textil
ZANGITU
Etixerako lenteria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

Pedro Egaña

Pedro Egaña (56 urte) 1936. urtetik zabalik dagoen Etxeberria erlojudendako jabea da. Horrez aparte, futbolzale amorratua dugu; Bergara K.E.ko presidentea izan zen 9 urtez, Gipuzkoako Federazioan ere izan da lanean eta Bergara eta Realeko bazkidea da.

- Bitxirik preziatuena?
- Diamantea.
- Emakume ala gizon gehiago etortzen dira dendara?
- Emakumeak.
- Eta biak batera etortzekotan nork agintzen du?
- Andrak igual gehiago...
- Emazteari bitxiak oparitzen dizkiozu?
- Bai.
- Berari egindako azken oparia?
- Erantzun bat, brillanteena.
- Zenbat erloju dituzu?
- Bakarra.
- Puntuala zara?
- Bai. Eta orduan heltzen ez direnei 5 minutu besterik ez diet itxoiten.
- Realala Bergara K.E.?
- Lehenengo Bergara.
- Zerbait faltan Realean?
- Probintziarekin lotura gehiago.
- Direktiboa izateko proposamenik jaso duzu?



“Bitxirik preziatuena diamantea dela esango nuke. Erloju bakarra daukat eta puntual izateari garrantzi handia ematen diot. Realean probintziarekiko lotura gehiago botatzen dut faltan”

- Bai, aspaldi, baina lanagatik ez nuen onartu.

- **Futboleko puroa erretzen duzu?**

- Ez, puroa San Martzial egunean bakarrik erretzen dut.

- **Jokalaria bat?**

- Aranzabal. Eta lehen *Gaztelu* eta Lopez Ufarte.

- **Entrenatzaile bat?**

- Toshack.

- **Atzerritarren aldekoa?**

- Ez.

- **Eta Estatuko jokalaririk?**

- Besteak ekartzen badira bai.

- **Harrobia behar den beste zaintzen da?**

- Nik uste dut baietz.

- **Telebistaz, zenbat futbol partidu ikusten dituzu astero?**

- Ematen diren denak.

- **Gogoan duzun partidu bat?**

- Realak lehen liga irabazi zueneko, Gijonen.

- **Urtaro bat?**

- Udazkena.

- **Nora egingo zenuke bidaiara?**

- Karibera.

- **Eta zer ez zenuke eramango?**

- Erlojua.

- **Donostiako Zinemaldia jarraitu duzu?**

- Bai.

- **Zein pelikula interpretatzea gustatuko litzaizuke?**

- *Nueve semanas y media.*

- **Indurain erretiratuko da?**

- Beste urtebete jarraituko du baina Tourra Olanok irabaziko du.

BEDELKARrek, Bergarako Dendarien Elkarteak, zera jakinarazi nahi du: San

Martinetako ferian antolatu genituen ekitaldietan laguntza eman zigutenei eskerrak eman nahi dizkiegu, bereziki hauei:

LACOR, MINER ARDOAK, ARTATSE ELKARTEA, IÑAKI

LABAKA, LAMAÑO BASERRIA, ETXEBERRIA ERLOJUDENDA, ARTZAMENDI

ERAIKUNTZAK eta BERGARAKO UDALA. Hauek guztiek eskainitako laguntzak indarra ematen digu etorkizunean antolatu

ditzakegun iharduerei ilusioz aurre egiteko.



ETXEBIZITZA

Pisua salgai Zabalotegin.
☎ 76 10 61.

Bilbon pisua osatzeko lagun bat behar da.
☎ 79 40 64.

Etxea salgai Zubietan. 8 milioi. ☎ (94) 682 03 23.

Garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 58 28.

Pisua salgai Espoioian.
☎ 76 58 14/79 83 45.

Garajea salgai Zurraderon. ☎ 76 02 89 (gauzez).

Pisu amueblatua alokairuan S. Antonion. ☎ 76 59 71.

Baserria salgai Elgetan.
☎ 12 09 67/12 71 10.

Donostian (Amaran) pisua osatzeko 2 neska behar dira. ☎ 76 17 20/27 18.

Bilbon pisua osatzeko 3-4 lagun behar ditugu.
☎ 76 03 58/76 57 70.

Osintxun buhardilla bat salgai. Bizitzeko egokia. Prezio oso merkea.
☎ 76 15 36.

Pisua salgai Mugertzan. Amueblatua. ☎ 76 53 79.

Pisua salgai herri erdian.
☎ 76 19 29.

Pisua salgai Martokuan prezio onean. ☎ 76 59 96.

Garajea (2 plaza) salgai Ibargarain. ☎ 76 28 33.

DENETARIK

2. eskuko tronpeta erosiko nuke. ☎ 76 08 42.

Errepiderako Alan bizikleta salgai. ☎ 76 34 25.

Enkuadernazioak egiteko prentsa erosiko nuke.
☎ 76 58 28.

Citroen Xantia (SS-AV) kotxea salgai. 3.000 kilometro. ☎ 76 28 50.

Logela eta saloi bateko altzariak egoera onean salgai. ☎ 76 36 82.

Mendiko bizikletako (XTR) kanbio eta frenu mantetako salgai. ☎ 76 52 31.

Renault 9 TSE kotxea (SS-H) salgai. 225.000 pezeta. ☎ 76 25 77.

Kotxe-silla bat salgai. Egoera onean. ☎ 76 13 60.

Setter txakurkumak salgai. Ehiztariak. ☎ 76 34 95.

Ford Fiesta kotxea salgai (SS-L). ☎ 76 37 59.

Logela bat salgai. 15.000 pezeta. ☎ 76 42 86.

Seat 124 kotxea (SS-N) salgai. ☎ 76 40 94.

Leioako unibertsitatera arratsaldero kotxez baldin bazoaz, deitu iezaidazu.
☎ 76 50 11 (Rosa).

LANA

Lizentziatu batek OHO, BBB eta UBI klaseak ematen ditu Bolun. ☎ 76 47 43.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 04 65.

Mate, fisika, kimika eta diedriko klaseak. BBB, UBI, LH. ☎ 76 24 31 (Eneko).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

Aleman diplomatuak klaseak ematen ditu. ☎ 76 12 77 (Maite).

Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 00 54 (Ainhoa).

Unibertsitate mailako klaseak ematen dira. Estatistika, UBI, DBH... ☎ 76 35 37.

Neska batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 13 46.

Neska batek haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 05 06.

Erizain batek arratsaldez lan egingo luke gaixoak edo helduak zainduz. ☎ 76 54 52 (Jone).

INGELES FRANTSES ALEMANA

MATRIKULA ZABALIK!!

• **KURTSO HASIERA URRIAREN 1ean.**

• **UMEAK** (6 urtetik aurrera), **GAZTEAK** eta **HELDUAK.**

• **MAILA GUZTIAK.**

• **GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ.**

• **IKASTARO TRINKOAK.**

• **AZTERKETA OFIZIALEN PRESTAKUNTZA**

INFORMAZIOA:

Begarako UNED. (3. pisua) ☎ 76 06 87





*“Traste zaharrak
desmontatu eta mugimentua
duten figurak sortzen ditut,
zalditxoak-eta”*

*“Kontradizioetan murgilduta
nago, ni pintorea naiz, baina
lan honekin asko
disfrutatzen dut”*

JOXEAN IZA, ARTISTA

“Egin ditudan figurak ez dira estatikoak, eta horiekin bideo-klipak egin daitezke”

Joxean Iza (35 urte), herriko beste hainbat margolari bezala, Simon Arrietaekin hasi zen pintatzen, 9 urteko mutil koskorra zela. Ondoren, Lazkano, Otamendi eta De Pedrokekin batera, Verdury Hallean ibili zen, eta 18 urte zituenean Parisera joan zen Arte Ederrak ikastera. Azken aldian, berriz, erabilitako traste elektronikoak birziklatuz artea egiten du. Bartzelonako Sorkuntza eta Birziklaiaren I. Maratoian hartu du parte udan.



Negutegi batean dauka arte estudioa.

- Zer ikasi zenuen Parisen?

- Niretzat txoke handia izan zen. Bergaran paisajeak eta egiten genituen, surrealismoan ere murgiltzen zen baten bat... baina Parisen inpresionistak ezagutu nituen eta horrek eragina izan zuen nire lanean. Europa osoko artistekin harremanetan jartzeko eta era askotako informazioa jasotzeko aukera eman zidan.

- Noiz hasi zinen erabilitako traste elektronikoekin artea egiten?

- Orain dela dozena

bat urte, kasualitatez. Kallean, zaborren artean, urrinetik gidatzen diren kotxe txiki horietako bat eta muñeka bat topatu nituen, triapak atera nizkien eta biak bat eginez, muñeko bat egin nuen. Izugarri gustatu zitzaidan eta harrezkero horretan murgilduta nago. Orain figura txikiak egiten ditut, zalditxoak-eta.

- Nola definitu orain egiten duzuna?

- Ez dakit. Ez naiz mugak jartzeko gauza, eskultura, pintura... Egiten ditudan figurak ez dira estatikoak, mugimendua dute eta horiekin bideo-

klipak egin daitezke... Definiezin dela uste dut nik egiten dudana. Bartzuk, arte zinetikoa dela diote, Canal Plusekoek, ostera, desmontajes titulua jarri diote. Gustatzen zait izen hau, azken finean hori baita traste zaharrek egiten dudana, desmontatu eta mugimendua duten figurak sortu. Museoetako eta galerietako giroa ez zait gustatzen, akzioa, mugimendua gustatzen zait, esate baterako, figurekin antzerkia, zinea, bideo-klipa edo balleta egitea. Bestalde, pintatu ere egiten dut eta horrelakoetan

ohizko materialak eta prozesua erabiltzen ditut.

- Ze material erabiltzen duzu?

- Fotokopiodorak, kottxeko kasetak, elektragailuen edota kotheen konponenteen motorrak eta horrelakoak, eta gero pintura akrilikoak, neuk egindako akuarelak...

- Zer moduz udako Bartzelonako maratoian?

- Oso gustora. Karpa handi bat jarri zuten eta 75 artista bildu ginen. Bakoitzak bere txokoa zuen eta kanpoaldean 100 metro kubiko txatarra. Nik soldadora, rotaflesa... eraman nituen.

- Jendeak artetzat du zure lana?

- Uste dut baietz. Espresatzeko modu bat da, barruan daukazuna adierazteko modua. Beste askok, berriz, pintatzera dedikatu beharko nintzatekeela esaten didate. Kontradizioetan murgilduta nago, ni pintorea naiz, baina lan hauekin izugarri disfrutatzen dut. Hala ere, akuarelak, marrazkiak, zirriborroak askotan egiten ditut. Zerbait erditu nahian nabil, buruari buel-taka. Mezua beti da berdina, zaldi libre bat izatea.

BKEko eskubaloia 96-97

BKEko eskubaloia saila 5 taldek osatzen dute, hiru mutilenak eta bi neskenak. Urte askotan azpiegitura berberarekin ibili ondoren aldaketak izan dira eskubaloia sailean. Josetxo Muniategik nagusien taldea laga eta jubenilak entrenatuko ditu. Gainera 2. maila nazionalako taldeak aldaketa ugari izan ditu jokalarien aldetik, joan zen urtetik bakarrik 5 jokalarik jarraitzen



BIGARREN MAILAKO NAZIONALA Goian: Ekain Sotil, Edu Iñarra, Kepa Mendibil, Iñigo Idigoras, Jon Sotil, Raul Pozo, Xabier Lijó (entrenatzailea) eta Ander Aretxaga. Behean: Aitor Aldanondo, Ibai Kareaga, Gotzon Aranguren, Gorka Larrañaga, Ibon Osa, Jon de Pedro eta Aitor Gomez.

baitute. Denboraldia asteburuan hasiko dute eta Xabier Lijók entrenatzen duen taldearen helburu bakarra mailari eustea izango da. Horretarako talde gaztea izango dute eta esperientzia falta nabaria izango den arren, gogo askorekin irtengo dira. *“Taldeari esperientzia falta zaio, baina indarrarekin eta gogoarekin mailari eustera irtengo gara”* adierazi digu Xabier Lijók.

Gizonezkoen gainontzeko taldeei dagokienez, bai jubeniletan eta bai kadeteetan mailari eustea izango da helburu nagusia.

Neskei dagokienez joan zen urtean maila autonomikotik jeitsi egin ziren jubenilak eta kadeteak, eta aurren bi taldeak lehen maila probintzian arituko dira. Halere, eskubaloia saileko arduradunek badute esperantzarik emakumezkoen taldekoak datorren urtean mailaz igotzeko. Helburu hori lortzeko ahaleginak egingo dituzte, baina azpimarragarria da aurtengo denboraldian hiru emakumezko Bergaratik Kanpo jokatzen arituko direla. Joan zen urtetik Donostiako Corteblando Bidebieta taldean dabilen Amaia Samaniegori, Eibarko Arraten jokatuko duten Usune Beristain eta Iruñe Gomez gehituko zaizkio.



JUBENIL MUTILAK. Goian: Kepa Eguren, Aitor Arruti, Mikel Larrañaga, Ibai Goenaga, Urko Altzerreka, Iñigo Arregi, Josetxo Muniategi (entrenatzailea) eta Aitor Sanchez. Behean: Mikel Agirrezabal, Iker Dorransoro, Ruben Sanchez, Lander Juaristi eta Aritz Mazkarian



JUBENIL NESKAK. Goian: Saioa Berraondo (entrenatzailea), Jone Azkarate, Eneritz Zabaleta, Ainhoa Fernandez eta Itxaso Ezenarro. Behean: Ariane Kareaga, Oihana Garmendia, Argiñe Zurutuza, Ane Arieteleanizbeaskoa eta Maitane Moñux.



KADETE NESKAK. Goian: Olatz Manuel, Irati Sasieta, Maitane Uribe, Ainhoa Unamuno, Edurne Hurtado, Ane Bueno eta Nagore Iñurategi (entrenatzailea). Behean: Nekane Plazaola, Maite Zabaleta, Ainhoa Usaola, Maite Esparza, Nora Madariaga, Lorea Zurutuza eta Nagore Davila.



KADETE MUTILAK. Goian: Eñaut Alvarez (entrenatzailea), Ibai Gomez, Aritz Lamikiz, Iban Orgaz, Unai Oteiza, Asier Mujika, Xabier Barrero eta Gurutz Urbistondo. Behean: Joseba Larrañaga, Josu Aranzabal, Kepa Castro, Josu Labaka, Peru Sagarna, Odei Elepuru, Jon Mendizabal eta Ortzi San Andres.

Futbito txapelketa martxan

4 multzotan banatuta, 53 talde arituko dira lehian

Igandean hasiko da Labegaraietako futbito txapelketaren edizio berri bat. Guztira 53 taldek, joan zen urtean baino 10 gehiago, hartuko dute parte. Lehen jardunaldian 4. mailako eta 3. mailako taldeek jokatuko dute eta guztiek barruan, kanpoko futbol

kantxa berrian ez dutelako portieriarik jarri. Talde bakoitzak irailaren 30a baino lehen 17.000 pzta. ordaindu beharko ditu. Asko dira oraindik ordaindu ez dutenak. Azkenik, antolatzaileek arbitroei gogoratzten diete arau berriak ikasteko.

1. MAILA

OGIZUN
UFALA
MADURA INDUSTRIAS GOL
ERROTAGAIN
AZPEITXI JATETXEA
A ZE FLAXA ETXAGI
BAR CANALEJAS
ORTZI
BILDURBAREK OPEL/LAM
ARLOTEAK
JAUJA OH ZEREZOS
MONGATXURRA
PAGOMENDI

2. MAILA

SOROPOTROAK
HALTZARI
INDARGORRI
ETXAGI
EZINLEIKE
ARTU SAMAK
ERI
LA JUVE
AGIRREBEÑA
UV BIKOITZA JAM
KAYAK Os JARDINEIROS
AUTOBEREZI
AGINASPI

3. MAILA

IGANDEKOAK
FAC
TXIPIRON
NEKROFILIKOS
MOSKIS
PJS
MRW
ARI ARI
PATXARAN TEAM
CONSTRUCCIONES BERGARA
NAHIKARI HOOLIGANS
EH BITERRAK
GUADALEST

4. MAILA

OSINTXU
MATXAKATEGI
AMILOTX
PATA NEGRA
ALDOKA MALDOKA
XURRUPAK
ETENGABE
POLI TABERNA
ARBE KIROLAK
PANORAMIX
PITTIXAK
SLO
KOMANDO PIPERRAK
MANITOU

PARTIDUAK

IGANDEAN BARRUAN

09:00: TXIPIRON- PATXARAN TEAM.
10:00: AMILOTX-PANORAMIX.
11:00: OSINTXU-POLI TABERNA.

AMILOTX.
OSINTXU.
MATXAKATEGI.

12:00: MATXAKATEGI-ARBE KIROLAK.
13:00: PATA NEGRA-PITTIXAK.
16:00: ALDOKA MALDOKA-SLO.
17:00: XURRUPAK-KOMANDO PIPERRAK.
18:00: ETENGABE-MANITOU.
19:00: FAC-ARI ARI.
20:00: MOSKIS-NAHIKARI HOOLIGANS.

PATA NEGRA.
ARBE KIROLAK.
XURRUPAK.
ETENGABE.
FAC.
MOSKIS.
ARI ARI.

**BERGARAKO
UDAL
EUSKALTEGIA**

**IKASLEAK
hartzeko deialdia**

Eskatzen da:
Goi edo erdi mailako titulazioa.
EGA nahiz baliokide den titulua.
Oinarriak eta informazioa:
Udal Euskaltegian (Zabalotegi, 13).
☎ 76 44 53.

Eskaerak aurkezteko epea:
Irailaren 30etik urriaren 4ko
19:00ak arte euskaltegian bertan.

**BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura**

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051.

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

T XINPARTAK

Futbol partiduak

BKEko preferenteko taldeak Ordiziaren kontra jokatu du domekan 17:00etan Agorrosinen. Bigarren mailako jubenilak, berriz, UDAREN aurka neurtuko ditu indarrak zapatuan 17:00etan Ipintzan, eta 15:30etan, lehen mailako infantilak, Aloña Mendiren kontra jokatu du.

Pilota partiduak

BKEko pilotariak partiduak jokatu dituzte ostiralean gaueko 10etan Udal Pilotalekuan. Jubenilak San Estebanen aurka arituko dira. Bestalde, junior mailan, banaka, Aloña Mendiren kontra jokatu du Bergarako ordezkariak eta bikoteka, berriz, San Estebanen aurka.

Muruamendiaraz

Iker Muruamendiaraz pilotariak asteburu honetan lau t'erdiko bi final jokatu ditu. Lehenengoa, Berasaluze VII.ren aurka zapatu gauean, Berrizen. Bestea, Pellicenaren kontra domeka goizean Intxaurren.

Gimnasia Antzuolan

Ariznoa Gimnasia taldekoek erakustaldia egingo dute igandean 12:00etan Antzuolako frontoian.

Jon Lazkano

Abentura amaigabea

Jon Lazkano mendizalea Pakistanen izan da Amin Brakk mendia eskalatzeko TVEko "Al filo de lo imposible" programarako. Gailurrera igotzea ezin izan du lortu, baina baditu kontatzeko hainbat gauza.

- Ze ezaugarri ditu Amin Brakk mendiak?

- Hasieran uste genuen paretak 1.200 metro zituela, baina gero 1.400 metro inguru dituela konturatu ginen. Aurten eguraldi nahiko arraroa egin du, negua oso berandu etorri baita. Neguan ez du elur askorik egin eta orduan egin ez duena udaberrian egin du. Paretaren goikaldean geundenean ekaitz gogorra sartu eta 1.000 metro-tara, 9 egun toki berean egin behar izan genituen, ez gora eta ez behera. Gainera ez geneukan jeisteko soka fijorik eta goiz batean eguraldiak onera egin zuen eta rape-laz beheraino joan ginen ia material guztia goian lagata. Guztira 15 egun egin genituen horman zintzilik eta irratitik entzun genuenez inguruetako herrietan 300 lagun inguru hil ziren eguraldi txarragatik.

- Orduan filmatutako guztia galdu duzue?

- Ez, filmatutako zintak jeitsi genituen eta hor dago baliorik handiena. Beste guztia, kamarak, materiala... galdu genuen arren.

- Noiz ikusi ahal izango dugu telebistatik?

- Urte bukaeran edo datorren urtearen hasieran.

- Oraingoan ere ezin izan duzue helburua lortu.

- Gure apostua oso gogorra izan da. Mendia soka fijo barik igo nahi genuen eta horrek esan nahi du edozein arazo baldin badago aukera bakarra dagoela mendia igotzeko. Gaizki irtetzen bada ez dago bueltarik. Apustua handia izan zen eta galdu egin genuen.

- Buruan beste proiekturik badaukazu?

- Orain Yemenera trekking bat eramango dut eta itzulitakoan, oraindik

ziurra ez den arren, Kanadan dagoen Bafin irlara eskalatzera joateko asmoa dut. Irla hori Kanada eta Groenlandia artean dago eta oso pareta handiak daude. Oso zaila da heltzea, klimatologia oso txarra da eta pareta oso luzeak dira. Proiektuak diru asko balio duen arren, udaberri bukaeran joateko asmoa daukagu. Bafin irlako mendi guztiek izen mitologikoak dituzte: Tor, Odin, Aisgar... gailurrak oso altuak ez diren arren, 1.600 metro-tako paretak daude. Behin bakarrik eskalatu dute eta 35 egun iraun zuen eskaladak.



"Apustu handia izan da eta galdu egin dugu".

"Kanada aldera joateko asmoa dugu udaberrian"



Rivabellosako udalekuetan

Udazkena heldu zaigu aste honetan eta nahiz eta abuztuko oporrak honez gero ahaztuta izan, bati baino gehiagori udako momentu onak ekarriko dizkio gogora argazkiak. Gaur egun udalekuetara neska mutiko ugari joaten den bezala, garai batean ere primeran pasatzen zuten gaztetxoek aita eta amagandik urrun.

Gaur egun neska eta mutiko, guztiak elkarrekin joaten dira, baina orain dela urte batzuk neskak txanda batean eta mutilak bestean pasatzen zituzten udako oporraldiak udaleku askotan Kutxak Rivabellosan antolatzen zituenetan, behintzat, horrela zen. Jolaserako eta ondo pasatzeko nahikoa asti izaten zen, baina disziplina gogorra ere agintzen zuten hango begiraleek.

Argazkian 1976ko abuztuan Rivabellosan igaro zuen Bergarako taldea agertzen da eta bertan 10-13 urteko mutil koskorak agertzen dira, gaur egun 30-32 urte dituztenak.

Goitik hasita eta ezkerretik eskumara:

Goiko laurak: Gabriel Etxaniz, ezezaguna, Alberto Franco eta Iñigo Jauregi.

Erdikoa seirak: Jabi Garcia, Jesus Angel Gardoki, Fernando Etxabarri, Miguel Angel Elkorobere-zibar, Alex Garitano eta Eneko Azkarate.

Aurreko laurak: Miguel Angel Basterra, Imanol Agiriano, Miguel Manso eta Hilario Manzanedo.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08




San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga


JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!



STEP-A

ARIKETA KARDIOBASKULARRAK
ERRESISTENTZIA AEROBIKOA (GRASAK ERRETZEA)



MUSKULAZIOA

GIARTZU GIMNASIOA

☎ 76 35 71

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
07:30	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA	STEP-A	MANTENIMENDUA, FITNESS-A	AEROBIKA STEP-A - SALTSA
08:15	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA	STEP-A	MANTENIMENDUA, FITNESS-A	AEROBIKA, STEP-A, SALTSA
09:00	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA	STEP-A	MANTENIMENDUA, FITNESS-A	AEROBIKA, STEP-A, SALTSA
10:00	JUBILATUAK	JUBILATUAK		JUBILATUAK	
11:00	AEROBIKA, STEP-A	MANTENIMENDU AEROBIKOA	AEROBIKA, STEP-A	MANTENIMENDUA, FITNESS-A	AEROBIKA, STEP-A
15:00		AEROBIKA, STEP-A		MANTENIMENDU AEROBIKOA	
17:00	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA, FITNESS-A	STEP-A	MANTENIMENDU AEROBIKOA	AEROBIKA
18:00	KARATEA	STEP-A	KARATEA	MANTENIMENDU AEROBIKOA	KARATEA
19:00	AEROBIKA	MANTENIMENDU AEROBIKOA, FITNESS-A	STEP-A	MANTENIMENDU AEROBIKOA	AEROBIKA, STEP-A
20:30	AEROBIKA, STEP-A	MANTENIMENDUA	AEROBIKA, STEP-A	MANTENIMENDUA	20:00: AEROBIKA, STEP-A

MUSKULAZIOA EGITEKO ORDUTEGIA: 07:30-14:00 ETA 14:30-22:00



KARATE SHOTOKAN

GORPUTZAREN AUTOKONTROLA
ENERGIAREN DESKARGA ETA KOORDINAZIOA

■ HEZIKETA FISIKOAN TITULATUTAKO PROFESIONALAK.

■ ENTRENATZAILE NAZIONALAK.


■ AEROBIKeko IRAKASLEAK.

■ KARATEA: 3. DAN-A, ENTRENATZAILE NAZIONALA, GRADUEN EPAI-MAHAJETAKO EPAILEA.



AEROBIKA


MALCUTASUNA - ELASTIKOTASUNA
(MUGIMENDU-GAITASUN GEHITZEA)



EMAKUMEENTZAKO FITNESS-A

INDARTZEA
(GORPUTZA MOLDEATZEA)

Egunero, gertuago



**Orain Bergaran ere zure zerbitzura gaituzu,
Barrenkaleko 30ean.**

Betidanik, "la Caixa" k, Bartzelona-ko Pentsio eta Aurrezki Kutxak, bezeroen ondoan egon nahi izan du, aurrezki, kreditu eta inbertsio aukera guzti-



"la Caixa"

CAJA DE AHORROS Y PENSIONES
DE BARCELONA

ak errazteko. Orain, bulego berriak irekitzen ari garenean, gertuago egoteak ematen duen erosotasuna eskaintzeaz pozten gara.

GIPUZKOAKO BULEGOAK

Arrasate: Garibai Etorbidea z/g. Tfnoa: 79 59 00. **Beasain:** Urbi-Alde kalea z/g. Tfnoa: 88 31 16.

Bergara: Barrenkalea, 30. Tfnoa: 76 41 16. **Eibar:** San Agustin kalea, 1. Tfnoa: 18 88 38.

Hernani: Juan de Urbietta kalea, 8. Tfnoa: 55 04 21. **Irun:** Hondarribia Etorbidea, 27. Tfnoa: 61 13 47.

Tolosa: Eskolapioetako lorategia, 3. Tfnoa: 67 30 55. **Zarautz:** Nafarroa, 6. Tfnoa: 13 15 49.

Donostia: Kolon Pasealekua, 23. Tfnoa: 29 37 90. Txurruka kalea, 14. Tfnoa: 42 67 30. Zarautz Etorbidea, 2. Tfnoa: 31 05 81.